



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Esadazu nor den, Jauna, sinets dezadan.”

2023ko martxoaren 19a
Garizumako 4. igandea (A)

Joan 9, 1-41.

Bidez zihoala, jaiotzatik itsua zen gizon bat ikusi zuen Jesusek. Hau esanik, lurrera listua bota, listuaz lohia egin eta lohiaz itsuari begiak igurtzi zizkion. Gero, esan zion: Zoaz garbitzera Siloeko urputzura (Siloek “Bidalia” esan nahi du). Joan zen, bada, garbitu eta ikusten zuela itzuli zen. Auzokoez eta lehen eskean ikusi ohi zutenek esaten zuten: Ez al da hau eserita eskean egoten zena? Batzuek zioten: Bai, huraxe da. Beste batzuek, berriz: Ez, ez da hura, haren antzeko bat baino. Berak, ordea, zioen: Bai, neu nauzue. Larunbata zen Jesusek lohia egin eta begiak ireki zizkion eguna. Horregatik, fariseuengana eraman zuten itsu izandako hura, eta fariseuek berriro galdegin zioten ea nola hasi zen ikusten. Hark erantzun zien: Lohia ezarri zidan begietan, garbitu nintzen, eta ikusi egiten dut. Orduan, fariseuetariko batzuek zioten: Gizon hori ez dator Jainkoarengandik, ez baitu atsedeneguna errespetatzen. Beste batzuek, berriz, zioten: Nola egin lezake bekatari batek horrelako mirarizko seinalerik? Eta ez zetozen bat beren iritzieta. Orduan, berriro galdetu zioten itsuari: - Eta zuk, zer diozue begiak ireki dizkizunaz? Hark erantzun: Profeta dela. Haiek erantzun zioten: Goitik beheraino bekatari jaio zinen, eta zu guri irakatsi nahian? Eta elkartetik kanpora bota zuten. Jakin zuen Jesusek sendatutako itsua elkartetik kanpora bota zutela eta, harekin topo egitean, galdetu zion: Sinesten duzu Gizonaren Semearengan? Hark erantzun: Esadazu nor den, Jauna, sinets dezadan. Jesusek esan zion: Ikusi duzu. Zurekin ari dena bera da. Orduan, Jesusen aurrean ahozpeztu eta esan zion: Sinesten dut, Jauna.

Sinesten duzu Gizonaren Semearengan?

BAZTERTUENTZAT

José Antonio Pagola

Jaiotzez da itsua. Ez berak, ez gurasoek dute inolako errurik, baina bere zoria markatua du betiko. Jainkoak zigortu duen bekataritzat hartu du jendeak. Ikasleek galdetu diote Jesusi ea zeinena den bekatua: itsuarena berarena ala haren gurasoena.

Beste era batean begiratu dio Jesusek. Ikusi duen momentutik, hura bere zoritarreko eskale-bizitzatik ateratzea erabaki du, jende guztiak gutxien badu ere, bekataritzat hartuz. Jainkoaren deia sentitzen du Jesusek: hain juxtu ere, baztertua eta umiliatua den jendea defenditzeko, onartzeko eta sendatzeko deia.

Itsuak, berak ere Jesusekin lan egin eta sendatze neketsu baten ondoren, lehen aldiz ikusi du argia. Jesusekin topo egin egin izanak kanbiatu egin du haren bizitza. Noizbait ere, gozatu ahal izango du bizitza duin batez, inoren aurrean lotsatu gabe.

Oker pentsatu du, ordea. Gidari erlijiosoek beharturik sentitu dira erlijioaren garbitasuna kontrolatzera. Haiek, berek dakite zein den bekatari eta zein bekatu gabe. Haiek, berek erabakiko dute itsu izana elkarte erlijiosoan onartzekoa den ala ez.

Alabaina, sendatua izan den eskaleak argiro aitortzen du Jesus izan dela hurbildu zaiona eta sendatu duena; baina fariseuek uko egiten diote haserre biazian: «*Guk badakigu gizon hori bekataria dela*». Eskaleak Jesus defenditzeari eutsi nahi dio: profeta bat da, Jainkoarengandik dator. Fariseuek ezin jasan dute: «*Bekatupean jaio zinen burutik oinetara, eta gure irakasle izan nahi al duzu?*»

Ebanjelariak dio: «*kanpora bota zutela entzun zuenean, haren bila joan zen Jesus*». Labor mintzatu dira biak. Jesusek galdetu dionean ea Mesiasengan sinesten duen, kanpora bota dutenak diotso: «*Eta, nor da, Jauna, harengan sinets dezadan?*» Hunkiturik erantzun dio Jesusek: Ez da zugandik urrun. «*Bera ikusten ari zara; mintzo zaizuna, horixe da*». Eta eskaleak: «*Sinesten dut, Jauna*».

Horrelakoa da Jesus. Beti bidera irteten zaie erlijioak ofizialki onartzen ez dituenek. Jesusek ez ditu zapuzten bere bila dabilzanak eta maite dutenak, elkarte eta erakunde erlijiosoek zokoratzen badituzte ere. Gure elizetan lekurik ez dutenek leku berezi-berezia dute Jesusen bihotzean.

Zeinek eramango die, gaur egun, Jesusen mezu hori talde horiei, edozein momentutan gidari erlijioso itsuengandik kondena publiko zuzengabeak entzuten dituzten horiei?, gure eukaristietan bakean ezin jaunartu duten horiei?, Jesusekiko beren fedea beren bihotzeko isiltasunean, kasik era ezkutu eta klandestinoan, bizi beharrean gertatzen diren horiei? Adiskide ezezagunok, ez ahaztu: kristauok uko egiten dizuegunean, bere harrera eskaintzen ari zaizue Jesus.